

2018-10-30eko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2018ko urriaren 30ean, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian , Marta Castrillo Iturralde eta Jesús María Alonso Insausti.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Jose Ignacio Imaz Bengoechea, Ainhoa Ugalde Gorostiaga eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA (2018-09-25).

Aurkeztu da 2018ko irailaren 25eko aktaren zirriborroa.
Akta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018/152 DEKRETUTIK 2018/184 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2018/152 dekretutik 2018/184 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

2018KO URRIAREN 10EKO 171 ZENBAKIKO ALKATEAREN DEKRETUA BERRESTEA (DIRU LAGUNTZA ESKATZEA EUSKO JAURLARITZARI IRISGARRITASUN OBARAK EGITEKO).

Jakinazten da Alkatearen 2018ko urriaren 10eko 171/18 Dekretua:

“Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailburuak onartu du 2018ko irailaren 5eko Agindua eta 2018ko irailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu du. Honen bidez udalentsako eta beste erakundeentzako diru-laguntzak arautzen dira eta 2018ko ekitaldiko deialdia egiten da, irisgarritasuna hiri-ingurunekeo zein eraikinetan bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin, eguneratzeko xedez.

Udal honek Irurako Irisgarritasuneko Plana onartuta dauka eta horien artean aurreikusten dira udal erakinen irisgarritasuna hobetzea eta kaleak urbanizatzeko obrak.

Obrak 2020ko urriaren 31rako amaitu behar dira eta diru-laguntza hauek eskatzeko udalak akordioa hartu behar du, zeinaren bidez eskatutako diru-laguntzaren xede den jarduketa gauzatzea onartzen baita.

Ildo horretan oso interesgarria da Udal honetan bi obra hauek egitea:

- 1) Irurako Udaletxe Eraikinaren irisgarritasuna hobetzeko obrak.
Aurrekontua: 205.611,17 €.
- 2) Kaleko urbanizaziotako irisgarritasun hobekuntza obrak.
Aurrekontua: 77.412,56 €.

Hori horrela, indarrean dagoen legediak jasotako eskumena betez,

ERABAKI DUT:

Lehena.- Aipatu den Aginduaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde eta Etxebizitzako Sailari diru-laguntza eskatzea aipatu diren obrak egiteko.

Bigarrena.- Udalarekin konpromisoa hartzea obra horiek gauzatuko direla.

Hirugarrena.- Udalbatzari jakinaraztea egingo den lehenengo bileran, ebazpen hau berresteko, ahal bada.

Olaia Nietok (EH Bildu) adierazi du diru laguntza hori eskatzeko ez dagoela oztoporik, onartzen baitute udal-etxeak irisgarritasun arazoak dituela.

Baina abstenituko direlako dauzkate aurrekaririk eta ondorioz ez direla fidatzen, aurreproiektuarekin gertatu zela eta.

Eta udalbatzak bost boto alde (EAJ/PNV) eta 3 abstentzio (EH Bildu) berrestu du.

LAUGARREN GAIA

2017KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63. artikulua arabera, Toki Erakundearen urteko orrien eta kontuen berri emango du udalburuak.

Gainera, ez da jendaurrean jarri oraindik.

Horrela, 2017ko ekitaldiko Irurako Udaleko Kontu Orokorrak aurkeztu dira dagokien dokumentazioarekin.

Hori ikusita, Udalbatzak, 5 boto alde (PNV) eta 3 abstentzio (EH Bildu), hau onartu du:

ERABAKIA

1.- Aipatu diren Kontu Orokorrak onartzea. Hala ere, jendaurrean jartzen direnean eta erreklamaziorik aurkeztu bada, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari erabaki honekin batera bidaliko dira.

2.- Kontu Orokorraren berri ematea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera."

BOSGARREN GAIA

IRURAKO IKASTOLAREKIN HITZARMENA ONARTZEA 2018/19 BI URTEKO GELA FINANTZATZEKO, HALA BADAGOKIO.

Irurako Ikastolak bi urteko gelarako diru-laguntza eskatu ohi du urtero. Hori dela eta, Udalak hitzarmen bat sinatuko du Irurako Ikastolarekin, azken urteetan bezala.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau onartu du:

ERABAKIA

Lehen.- Aipatutako 2018/2019 ikasturterako hitzarmena onartzea ematea eta 3.600 euroko diru laguntza ematea, eta Ana Jesús Leunda

Gurruchaga Irurako Udaleko alkate-lehendakariari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Bigarrena.- Diru-kopurua jaso aurretik, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztatzea aurkeztea
- b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duen ziurtagiria aurkeztea.
- d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du

SEIGARREN GAIA

AGIJUPENS-EN ADIERAZPENA PERTSONA NAGUSIEN BIRA DELA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkezten da :

“Iraila eta urria hilabeteetan, Gipuzkoako udal guztietan, nagusien balioaz eta gure eskubideen defentsaren garrantziaz sentiberatasunezko kanpaina bat bultzatzen ari gara.

1. Ikuspegi orokorra

1.1. Jendetza

Zorionez urte gehiagotan bizi izateko itxaropena bizi-kalitatearekin elkartuta doa. Zahartze aktiboa sustatu nahi dugu. Gainera, pertsona zaharren ahalduntzeak aldi bakoitzean gehiagotara joan behar du, eta paper parte-hartzailea, nabarmenagoa eta adierazgarriagoa izan beharko luke bai prozesu publikoetan eta baita udalaren bizitza politikoan.

1.2. Pentsioen jasangarritasuna

Garrantzitsua da pentsio duineko pertsona nagusiek eros-ahalmena galtzen ez duten sistema publikoa bermatzea. Horregatik, garrantzitsua da KPIa lotuz egon dadila pentsio igoera eta hau egonkortua izan dadila eta ez dadila egon alderdi politikoan eta gobernu itunen menpe. Era berean, jasangarritasun faktorearen indargabetzea eskatzen dugu.

Zahartzaroan zehar emakumeen zaugarritasun ekonomiko eta sozialak arduratzen gaitu, bai lan bizitzan dagoen soldata desberdintasuna pentsioetara ere eramatea, eta batez ere, alarguntza pentsioen estaldura sistema kolokan jartzen dugunean.

Era berean salatzen dugu IRTP delakoa, Norberaren Lanaren etekinari jarritako zerga, nolaz gure langile bizitzan Kotizazio Legearen babesean egindako mozkina eta murriztapena dela eta, gaurko gure pentsioei ezin zaiela hori ezarri, lehen ordaindua baitugu, eta orain bir-ordaintzea ez baita zuzena, horregatik horren berehalako itzultzea eskatzen dugu eta zerga horren baliogabetzea.

2. Gure Udalari eskaerak.

- 2.1. Erretirodunen Zentro/Gunekiko harreman instituzional hobea bultzatzea.
- 2.2. Gure Zentro/Guneen jasangarritasun ekonomikoa bermatzea.
- 2.3. Pentsio duin eta zuzenago baten aldeko gure eskabidea babestea.
- 2.4. Mota guztien hesiak ezabatzea eta etxebizitza-eraikuntza eta pertsona guztien hiri-espazioa ahalbideratzea eta hori erraztuz eta pertsona guztien elkar-lotura bultzatuko duena.
- 2.5. Eskatzen dugu Udalak "Euskadi-Lagunkoia" proiektuarekin bat egin dezala, hiri eta pertsona nagusiekiko herri adiskidetsua izan dadin, hiri-altzarien mantenua, espazio berdeko gozamina egiaztatuz, garbiketa eta segurtasun zainduz eta irisgarritasuna hobetuz.
- 2.6. Herri mailako pertsona nagusien kontseiluak bultzatzea, eta erakunde honetako pertsona batek zuzendua izan dadin.
- 2.7. Bizitza guztirako izan behar duen heziketa aktiboa bultzatzea. Eremu honetarako inbertsioa biziagotu beharko litzateke.
- 2.8. Domotikaren aldeko apustua egitea bai Jubilatuen Elkarteetan eta baita pertsona nagusien etxebizitzetan, bizitza errazago eta duinago bat izan dezaten.
- 2.9. Aldarrikatzen dugu ez desiratutako bakardadeari eta isolamenduari amaiera ematea, zeren bere osasun fisikoa eta burukoa ahuldu dezaketelako.

3. Azkeneko hitzak

- 3.1. Bere aurrekontu egokiarekin Pertsona Nagusien zinegotzitza eskatzen dugu, herritar osoak, eskubideekin eta betebeharrekin izaten jarraitzen dugunez gero.
- 3.2. Uste dugu "zaharkeriaren" fenomenoak, adinean oinarritutako diskriminazioak baduela bere eragina, eta bizitza arruntean bezala bizitza administratiboan konpontzen joan behar duela. Eskatzen ditugu hurbiltasun gehiago eta urruntze gutxiago, zuzeneko erlazio gehiago eta burokrazia gutxiago.

3.3. Nahiko genuke udalbatza osoan eskutitz hau aztertzea eta ahal bada onartzea, pertsona nagusiaren balioztapena eta aintzatespena aitortuz eta partaidetza bideratuz.

3.4. Badakigu non gauden, eta nahiko genuke zurekin harreman zuzena izatea. Gustatuko litzaiguke bilera bat zurekin izatea. Horregatik lehenbailehen jaso ahal gaitzala erregutuko genizuke.”

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) adierazi du bere udal taldeak abstenituko dela ez zaiola ondo iruditzen plataforma baten bakarrik aldarrikapenak onartzea, uste dutelako jubilatuen aldarrikapenak defendatu behar dela ,baina orokorrak : KPI-ren igoera , pentsioen erreformari uko egitea , Euskal sistema propio ...

Udalbatzak , 5 boto alde (EAJ/ PNV) eta 3 abstentzio (EH Bildu) onartu du.

ZAZPIGARREN GAIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Ez dago ezer.

ZORTZIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dira:

- a) Alkateak adierazi du 2019ko aurrekontua prestatzen ari direla eta datorren hilabetean bilera egingo dela hau aurkezteko eta beste taldeak alegazioak prestatzeko aukera izateko. 30.000 euroko partida jarriko dela herritarrek beraien aukerak aurkezteko.
- b) Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) adierazi du dekretu batean Zaharren Biltokirako diru laguntza agertzen dela, baina orain elkarte hori desagertu egin dela eta orain Eguzki Goxo elkarte dela.
- c) Olaia Nieto Ugaldek (EH Bildu) adierazi du okindegi aurrean ezbeharra gertatu zenari buruz, bere taldeak adierazi nahi du: Lehena errudunak gaizki egin zuela seinaleak kentzeagatik eta horren ondorioz emakume bat erori zela eta mina hartu zuela. Bigarrena, ondorioz udalak zati bat ordaindu zuela eta galdetzen dio Jose Ramoni zerbait daukan esateko. Alkateak erantzun du berak erantzungo duela, dena legearen barruan egin dela eta azalpen guztiak eman zirela batzordean eta bestela idazkariak, hemen dagoela, esango duela.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) galdetzen du zergatik ez duen zinegotziak berak erantzuten.

Alkateak erantzun du normalean berak hitz egiten duelako.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) galdetzen du Udalak kasu honetan ordaintzen duela zati bat baina alkatearen dekretuaren zerrendan daudela bi edo hiru dekretuak onartzen diren isun batzuk trafikoko araudiak hausteagatik, auto batek trafikoko araudiak hausten ditu eta puskatzen ditu kaleko seinaleak eta isuna eta kalte ordainak ezartzen dizkio eta zergatik, antzeko kasuan ez da ezartzen isunik eta gainera laguntzen da kalte ordain ordaintzen.

Idazkariak erantzun du hirugarren pertsona bat dagoelako okindegi istripuan eta aipatu diren kasuetan trafikoko seinaleak dira eta okindegi kasuan ez.

- d) Alkateak adierazi ditu zorionak ematen dizkie Xabier Artola jaunari eta Idoia Besada andreari , Seguran izan den Euskal Dantza Txapelketan txapeldunak izateagatik , denon partetik.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) adierazi ditu bere taldearen zorionak.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "www.irura.eus" helbidean.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA